

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 627/2021 Erabakia, urriaren 26koa. Behin betiko onestea ondasun higiezinaren gaineko zergari lotuta dagoen hiri lurzoruaren mugaketa, Guardiako udalerrirako egina

Irailaren 17ko 550/2021 Foru Aginduaren bitartez, behin-behineko onespena eman zitzaion ondasun higiezinaren zergari loturiko Guardiako udalerriko hiri lurzoruaren mugaketari, zeina udalerriko plangintzako arau subsidiarioen zenbait aldaketa puntual jasotzeko egin baitzen.

Igaro da Guardiako Udalak egokitzat dauzkan alegazioak aurkeztu ahal izateko 15 eguneko epea, Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bategineko 11. artikuluko 4. apartatuan ezarria, eta hark ez du inolako desadostasunik adierazi hartutako ebazpenaren inguruan.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatu titularrak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea, honekin batera doazen planoen arabera, ondasun higiezinaren zergari loturiko Guardiako udalerriko hiri lurzoruaren mugaketa, zeina udalerriko plangintzako arau subsidiarioetan egindako zenbait aldaketa puntual jasotzeko egin baitzen.

Bigarrena. Hori gorabehera, kontuan eduki behar da Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bategineko 3.2.b) artikuluan ezarritakoa, hiri izaerako eraikinek okupatzen dituzten eta herriguneetatik kanpo dauden lurzoruen tratamendurako.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, bai eta lurralde historikoko egunkari salduenetan ere. Gainera, jendaurrean egongo da hamabost egunez, interesdunek egoki iritzitako erreklamazioak jar ditzaten. Guardiako Udalaren bulegoetan jarriko da jendaurrean, halaxe xedatzen baitute Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bateginak 11. artikuluen 5. apartatuan, eta hura garatzen duen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 1080/1992 Foru Dekretuak 7., 8. eta 9. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 26a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

M^a JOSÉ PEREA URTEAGA